

## Kultura politiko berri baterako elementuak

2021-02-18



**Genero problematika**  
**AINHOA VIDAL**

Emakume langileon zapalkuntzaren izateko arrazoa eta haren erantzukizuna kanpo-faktore ezberdinetan koka dezakegu, izan burgesiaren akumulazio gosean, politika kapitalisten ustelkerian edo ideologia matxistaren forma guztietan. Baina askapen erreal bat lortzeko ezintasunak edo horretarako posibilitateak gehiago du barne-faktoretik kanpokotik baino. Izan ere, kanpo-faktoreak, kokatzen ditugun lekuan kokatuta ere, gaurko gizartea mantentzeko elementu positiboak dira, hau da, errealitate forma horri erantzuten diote. Ondorioz, argi dagoena da, horiek gainditzeko baldintzak norbaitek garatuko baditu, ez direla gizartea den bezalakoa mantentzeaz arduratzen diren agenteak izango eta, beraz, gure gain hartzea dagokigula errealitatea osatzen duen marko sozial honen gaindipenerako eta, horrenbestez, emakumeon askapenerako baldintza subjektiboen garapena. Era berean, ulerturik emakumeon emantzipazioa soilik askatasun unibertsalaren markoan dela posible, eta hori klase-gizartean botere-hartzearen auzia dela, galdera honako hau litzateke: nola garatu bide horretan pauso efektiboak emango dituen mugimendu femenino iraultzaile bat?

Galdera horren erantzunari ekarpen bat egiteko asmoz, testu honetan emakumeon auzia borrokatuko duen kultura politiko berri baterako garrantzitsu ikusten ditudan hurrengo elementuen inguruan arituko naiz: 1) espiritu emantzipatzailearen berreskurapena; 2) osotasunaren analisia; eta 3) antolakuntzaren kulturaren eraikuntza.

Hasteko, galdutzat dirudien **espiritu emantzipatzailearen berreskurapenari** buruz jardun nahiko nuke. Iraultza artikulatzeko, ezinbesteko premisa izanik absurdoa irudi lezake esateak kapitalismoaren gaindipen errealaren posibilitatea iruditeria sozialean egonkortu behar dela. Baina, postmodernitatea, ezerk defini badezake, errelato handien gainbeherak edo subjektu unibertsalen gabeziak definitzen du, eta beraz, emantzipazio unibertsalerako aukeren eta

iraultza subjektuen ukapenak. Borroka-kultura femeninoa ere, oro har, postmodernitatearen ezaugarri horiek hartu dute, eta ondorioz, askatasun unibertsalaren ezintasunaren aurrean, programa erreformistetan eta askatasun indibidualen aldarrietan gotortu da. Askatasun unibertsalaren posibilitatean sinesten dugunoi, ordea, iraganean iltzatuta gaudela uste dutenen kontra, inoiz iruditeria soziala okupatu izan zuen espiritu horren zatiak bazterretatik erreskatatzea dagokigu, elementu berriekin osatu eta espiritu askatzailearen berpizkundea iragartzea.

Horrek, era berean, zenbait auziren bestelako trataera bat dakar, besteak beste, arrazoia eta errealitatearen analisi objektiboena. Agerikoa da objektibismoa krisian dagoela, errelatoak nagusitu dira errealitatearen ezagutza-metodo gisa eta arrazoia alboratua izan da; «egia objektiborik ez dela existitzen» iragartzeaz arduratu dira postmodernismoaren defendatzaileak. Errealitatea soilik modu subjektiboan antzeman daitekeelako ideiak historiaren ukazioa adierazten du eta, beraz, horizonte askatzailea lausotzen. Ideia horien kontra, errealitatea den moduan ulertu eta bera gainditzeko elementuak eskainiko dizkigun zientzia propioaren garapena da, beraz, ***burgesiaren buruen kontra jaurti dezakegun misilik beldurgarriena.***

Emakumeon emantzipazio-estrategia errealitate osoarekiko loturan ezaugarritu beharko du goraka ari den mugimendu berriak. Horretarako, **emakumeon auzia auzi sozial orokorrarentestuinguruan garatu** beharko du eta, hortaz, osotasun kapitalista gainditu dezakeen forma politiko bakarra antolakuntza komunista dela ulertu. Izan ere, kapitalismoaren adierazpenak -emakume langilearen zapalkuntza, esaterako- prozesu sozialarekiko modu independentean hartzen baditugu, gizarte forma orori komunak zaizkion kategoriak diren itxura eman diezagukete, hau da, ahistorikoak direla nolabait, eta beraz, bere horretan borrokatu beharrekoak. Baina, azterketa osotasunetik abiatuta egiten badugu, errealitatea bere konplexutasun guztian ulertzen saiatzen bagara, ohartuko ginaguteke partzialitate bakoitza ez dela osotasunaren aurretikoa edo, behintzat, osotasunaren parte delako dela den bezalakoa. Halaber, osotasuna ezin dela

parteent batura soiletik atzeman, eta hortaz, emakumeon zapalkuntza ere ezin dela errealitate kapitalistarekiko modu isolatuan azaldu.

Askatasunaren posibilitateak eta hura lortzeko estrategia iraultzaileak subjektuaren eraikuntza galdegiten dute era berean. Bada, subjektibitate desberdinetan eraikitako identitateek klaseak inoiz izandako leku hura ordezkatu nahi duten honetan, honen artikulazioa premisa bihurtu da. Izan ere, langile-klasearen zatiketa baten lekuko izan gara, eta ez gaur egun klaseak existitzeari utzi diolako, kontzientzia kolektiboaren erreproduzioa krisian dagoelako baizik. Era berean aipatu beharrekoa da haien programa interklasistei «klase» kutsua emateko asmoz-edo, zenbaitzuk «emakume langilea» askotariko emakume-identitatearen artean identitate bat gehiago bezala erabiltzen hasi badira ere, hori ez dela aldarrikatu beharreko beste identitate bat. Izan ere, baldintza historikoek emakume proletarioa subjektu sozial egiten duten eran, beren baldintzak gainditzeko beharrian eta aukerek, bere identitatearen goraipamenaren ordezkari, subjektu politikoaren eraikuntza galdegiten dute. Hau, halaber, proletarioaren artikulazioan aurkituko du, askotan errepikatu dugun bezala, hura baita, hain zuzen, subjektu egiten duten baldintza sozialen deuseztapenaren bidez, mundua aldatu lezakeena.

Aurreko ideia horrek, hain justu, azken elementura garamatza, konformismo normalizatuaren aurrean **antolakuntzaren kultura normalizatzearenera**, alegia. Eta horretan, nire ustez, auzi bat zentrala zaigu: elkartasunaren antolakuntzarena. Zenbait sektore postmodernotatik borroka etengabe partzializatzean, subjektibitateetatik subjektuak eraikitzean eta elkartasuna besteen borrokekiko inplikazio ezean oinarritu izan da. Aniztasuna errespetatuz betiere, baina, elkartasuna hurkoaren borrokekiko konpromisoan oinarritzea, eta, beraz, bere garaiaren arazoetan inplikatzeko da mugimendu berri honi dagokiona. Elkartasuna, printzipio bezala, iraultzarako borondatea artikulatu eta antolakuntza forma eraginkorrek garatzean materializatu behar da horrenbestez, norbere zibilborrari begiratzeari utzi eta, belaunaldi berriak antolakuntzaren kulturaren hezteko eta zaharrak antolatzerako

bultzatzea norma bihurtuta.

Feminismoaren bigarren olatuak, pentsamendu postmodernoarekin loturan garatu zenak, kultura femenino propio bat eratu zuela esan daiteke; mugimendu feministaren oinarrian ezarri zituen gaur egun nagusi diren barne «aniztasunaren», askatasun indibidualaren goraipamen eta antolakuntza informal, horizontal eta deszentralizatuaren mitoak. Programa iraultzaileak, askatasunera bideratuta badago, proletalgoaren botere-hartze politikoa du jomuga, eta horrek antolakuntza zentralizatua, batasun estrategikoa eta iraultzarekiko subordinazioa eskatzen ditu. Horrenbestez, urteen poderioz kontzientzia espontaneoan ezarri den autoritate moralari aurre egitea eskatzen du, hau da, ideia «kritikaezinak» zalantzan jartzea. Ausardia ariketa bat, eta borondatearen ebazpena, batez ere.

Bere burua sozialistatzat izan dezaketen proposamen ugari egon daitezke mahai gainean edo emakume langileari erreferentzia egiten dieten ahots asko altxatu daitezke egunotan, baina Clara Zetkinek ohartarazi zigun bezala, tentuz hartu behar ditu horrelako proposamenak. Izan ere, auzi determinanteak ez datza izendapenean edo borondatean, estrategian baizik. Eta horregatik, mugimendu femenino komunistak, munduaren eraldaketan eragin nahi badu, kultura politiko berri bat sortzeko eginbeharrari egin behar dio aurre.